



3 POLITIKA

Aparkaleku kopurua handitzeko azterketa egingo da

Asteartean Udalbatzarra ospatu zen eta gai guztiak onartu ziren. Gai nagusia PSE-EEK aurkeztutako eskaera izan zen, aparkalekuen arazoa konpontzeko trafikoaren eta kaleetako aparkalekuen azterketa egitea. Abereen jabetza eta osasuna babesten duen araudia eta 2014 urteko taxien tarifak ere aztertu zituzten alderdiek. Bestalde, Bilduk PSE-EE eta PPri aurreko batzarrean Udal inkestaren inguruan gezurra esan izana aurpegiatu zien.




Euskal Jaian parte hartuko duten elkarte eta talde batzuetako ordezkariak izan ziren atzo arratsaldean Okendo plazan egindako aurkezpenean.

5 OROIMENA

Gerra garaiak Angel Belzaren eskutik

Islada Ezkutatuak Oroimen historikoaren aldeko taldearen eskutik aste honetan bisita berezi bat izan da Lasarte-Orian, Angel Belza. Lasarte-Oriar honek herria 11 urte zituela utzi behar izan zuen eta, milaka errepublikar familiarietako haurren antzera, La Habana ontzian Errusiarara egin zuen bidaia. Egun hauetan bere testigantza azaltzen izan da herrian eta, bide batez, bere liburua aurkeztu zuen: "Angel Belza. Memorias de un niño en Rusia, 1937-1957".



Atzo arratsaldean, herriko hainbat elkarte eta talde urriaren 19an Lasarte-Orian egingo den Euskal Jaia aurkeztu zuten. Kantua, dantza, pilota partidak... Denetarik izango da, eta "Okerra" harri berezia ere altxako dute.

Urriaren 19an euskal giroa izango da gure herrian eta, batez ere, Okendo plazan. Izan ere, Lasarte-Oriako hainbat elkarte eta talde batu dira Euskal Jaia ospatzeko.

Atzo arratsaldean jaian parte hartuko duten hainbat elkarte eta taldeetako kideak bildu ziren egitaraua aurkezteko.

Benedikara irteera

Goizean goizetik hasiko dira ekintzak. Oinatz taldeko lagunak eta Gazte Klubeko gazteak irteera egingo dute gure

herrian dagoen mendi bakarrera, Benedika mendira.

Gazte Klubeko lagunak bertan duela sei hilabete lurperatutako denboraren kapsula atera eta gauza gehiago sartuko dituzte barruan.

Ekitaldiak

Bestalde, trikitilarien lagun-tzaz kalejira berezia izango da herriko kaleetan. Honetan, kantua, dantza eta bertsoak nahastuko dira.

Gainera, Okendon ibilbidea amaiera emateko txalapartariak eta bertso-saioa izango dira. Txulalari ere dan-

tzatuko dela aurreratu dute antolatzaileek.

Ondoren, paella gozoa dastatzeko aukera izango da Okendo plazan bertan.

Bazkal ostean, "Hiru, bi, zasti, egizu jolas" haurrentzako antzerkia, dantza eta kantua izango dira guztien gozamenerako.

"Okerra" harria

Jarraian, kirolen txanda izango da. Familiei zuzendutako herri kirolak, lokotxak, giza proba eta sokatira, izango dira. Haurrentzako pilota partidak ere izango dira Okendo plazan jarriko den pilotalekua berezian.

Eta azkenik, erronka ederra izango da, "Okerra" harria altxatzea.

139 kiloko harria Sasoeta baserrian zegoen orain mende erdi, eta Joxe Mari

Lasaren familiak gorde du. Gutxi izan dira harria jaso dutenak.

Musika eta pintxo potea

Jaiari jarraipena emateko, "Trikihots" taldearen erromeria izango da.

Eta egunari amaiera bapo emateko, herriko 15 tabernatan pintxo-potea izango da. Kalejira trikitilarietako girotua izango da.

Baserritarrez jantzita

Antolatzaileek herritar guztiari gonbita egiten diete jaian parte har dezaten eta, batez ere, baserritarrez jantzita joatea eskatzen dute.

Era berean, bazkarirako txartelak salgai daudela jakite-rama eman dute. 6 euro balio dituzte. Hauek Jalgi tabernan eta Ttakun kultur elkartearen daude eskuragarri.

Usurbil Kirol Elkarte 50 urte
1963-2013

Dagoeneko salgai dago Usurbilgo eskubaloi taldearen liburua!

15€

50 urteko ibilbidea biltzen duen liburua Usurbilgo Laurok, Lizardi eta Noaua! Kultur Elkartearen eskuratu dezakezu

* 943 36 03 21 eskuratzeko beste aukerak

Neure kabuz



Asier Odriozola

Txema Valles

Orain egun batzuk Lasarteko kaleren batean oinez nindoala hara non topatu nuen paretean itsasitako iragarki bat. Argazki bat zuen erdi-erdian eta itzulinguru guztian herriko elkarte amaigabeen seinaleak. Argazki hartan Txema Valles zegoen, lepotik behera kamera zintzilik zuela, edozein egunetan ikusi ohi dugun tankeran.

Garbi zioen iragarkiari hari omenaldia egin behar ziotela, ez zuen iragartzen ordea iragarkiari, oso oker ez banabil behintzat, zergaitia. Geroago jakin nuen lagun bati galde-tuta EL DIARIO VASCO egunkarian gure herriko gora-beherak azalduz 30 urte zeramatzala eta urteurren borobil hura zela Txema goxatzeko arrazoia.

Harrezkero topo egin dut berarekin Okendo plazan, edonoiz, maiz, erraza baita Txemarekin topo egitea, gehienetan, argazkian bezala, kamera lagun eta aldi berean karga duela. Zorionak eman nizkion eta ezagun zuen harro zegoela, gustora, erre-konozimendua jasotzera zihoyalako.

Eta ez da gutxiagorako: edozertan 30 urte aritzea, edozeinekin 30 urte pasatzea, edonon 30 urte egon izana ez baita ahuntzaren gauerdiko eztula. Pazientzia behar da, borondatea, egoskorkeria eta berezkotasuna.

Horiek guztiak nonbait badituelako eta herritarrek hori eta gehiago onartu nahi izan diotelako...


Bejondeiola!!!!

Zorion agurrak



Garazi

Txokolatzeko muxu potolo bat gure etxeko erreginari bere 6. urtebetetzean. Tito eta amoiñen partetik.



Manuel

Zorionak "la Gordi" eta semearen partetik. Afaltzera gonbidatuko zaitut!



Kenai

Zorionak bihotza. 7 muxu Miguel, Darko eta amaren partetik.



Maitane

Zazpi muxu potolo printzesa Itsaso, aita-txo eta amaxoreen partetik.



Idoina

Berandu baina kasu honetan itxoiteak merezi du. Zorionak jalgunekoen partetik!



Gaizka

Zorionak txapeldun!! Lau muxu handi famili guztien partetik.



Antonio

Zorionak aita-txo! Muxu erraldoi bat Julen, Naroa eta amaxoreen partetik.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.



Jarrai gaitzazue txintxarri.info eta twitter eta facebook kontuetan ere

Azoka txikia

Eskaizta inmobiliarioak

- Pisua salgai Usurbilen (61 m²-ko beheko solairua + pisu azpiko trasteleku), kapritxo handiz 2008an eraikia. Logela, ikasgela, egongela-jangela-sukaldea eta komuna. Aire egokitua, berogailua, beira bikoitzeko leihoak... oso funtzionala. Bizitzeko jartzeko moduan. Garaje itxia aukeran. 649 895 858
- Urbarteko auzoan Atsobakar erresidentzia frentean garaje marra bat alokatzen da. Harremanetarako, 943 364 169 (Gabriela).
- Garajea alokatzen da Atsobakarren,

Garaikoetxea ikastetxe parean. Sarrera erraza du, handia eta merkea da. 943 36 54 76 659 021 945

Lan-eskaria

- Erreferentziak dituen neska lan bila. Etxeko lanak egin edo haur zein pertsona adinduak zainduko lituzke. Orduka edo interna moduan. Harremanetarako, 628 272 416.
- Interna, externa modura edota orduka lan egiteko prest garbiketara edo zaintzan. 671 763 558

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Axel Fuertes Sanchez, irailak 30.



Heriotzak

- Isidora Vivancos Garcia, urriaren 6an, 98 urte zituela.
- Julian Perez Crespo, urriaren 4an, 71 urte zituela.



Begoña Bergara Aldaz
urriaren 5ean, 63 urte zituela.

GOIAN BEGO

Taldea izan da zure bizitzan garrantzitsu. Inbidia sortarazi digun koadrila.

Beti lanerako prest. Umore ona konstante zure bizitzan. Kantuan ere bikain ibiltzen zinen.

Guk hala ezagutu zaitugu. Euskararen maratoioan, inauterietan, Santa Ana parodietan... Jakin ezazu hurrengoetan ere gurekin egongo zarela.

Asko duzu asko jaso duzulako.

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 11
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Larunbata, 12
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Igandea, 13
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Astelehena, 14
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774
- Asteartea, 15
Gil, Kale Nagusia 24 943 361529
- Asteazkena, 16
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Osteguna, 17
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Alezan zenbakiko: 7800

txintxarri

Erredakzioa:

Maidor Azumendi, Nerea Ezzagirre, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Maitu Amuti, Asier Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Aizpitarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

UDALBATZARRA

Aparkalekuak gehitzeko azterketa

Animaliak edukitzeko araudia eta taxien tarifak ere onartu ziren

Asteartean urriko ohiko batzarra izan zen. Bertan aurkeztutako mozio guztiak onartu ziren, hala nola, abereen jabetzaren araudia berria, 2014 urteko taxien tarifak edo aparkaleku gehiago sortzeko azterketa.



Esate baterako, Uistin kaleko aparkalekuak aipatu ziren aparkalekuen gaia jorratzean.

TXINTXARRI

Ohiko udalbatzarra izan zen asteartean eta hainbat mozio eztabaidatu ziren bertan.

Lehenik, Dinamizazio Sozioekonomikorako batzorde berrian udal-taldea osatuko duten kideak eta PSE-EEK Partehartze batzordeko kidea aldatu duela jakinarazi zen.

Ondoren, animaliak babes-teko eta edukitzeko Udal Araudien onarpena egin zen.

Hau zaharkitua zegoenez, beste herri batzuetakoa oinarri hartuta parte-hartze bilerak egin zirela azaldu zuen Nerea Sanchez Hirigintza saileko arduradunak.

Bilera hauetan herritarrek egindako ekarpenei esker, txakurrentzako hiru gune desberdin izango dira, batzuetan ezingo dira aske ibili, besteetan ordutegia izango dute, eta azkenik, egun osoan aske ibiltzeko guneak izango dituzte. Udalak azaldu zuenez, auzo guztietan txakurrak aske egoteko eremu bat egongo da.

Taxien igogera

Era berean, 2014 urterako taxien tarifa urbanoak onetsi ziren. PP izan zen abstentitu zen bakarra.

Ana Prieto Zerbitzuak ba-

tzordeko buruak azaldu zuenez, tarifetan 2012 eta 2013 urteetako uztailen arteko KPIa izan da kontuan eta igogera %2,2a izango da. Honen ondorioz, eguneroko tarifa minimoa 5,0098 eurotako ia izango da eta jaiegun edo gauetan, berriz, 5,9714 eurotakoia.

Aparkaleku gehiago

Puntu hauetaz gain, PSE-EEK aurkeztutako bi mozioak ere onartu ziren.

Batetik, Lasarte-Oriako auzoetako trafikoa aztertu eta plaza berriak sortuko dira. Ana Prietok jakinarazi zuenez, lanean ari dira dagoeneko.

Bigarren mozioan, ospitaleetan banatzen diren farmakoen koordinketa errefusatzeko onartu zen, PPren aurkako bozkarekin, eta LOHP abstentitu egin zen.

Lanak

Galdera eta erreguen artean, Bilduk PSE-EE eta PPri udal inkestaren inguruan gezurra esan izana aurpegiaratu ziren lehenik. Alderdi guztiei bidalitako mezua aurkeztu zuen.

PSE-EEko bozeramaileak okerra onartu zuen, baina PPko eta PSE-EEko zinegotziek Bilduri interesatzen zaionean tes-

tuak elebitara bidali edo telefonoz harremanetan jartzen dela adierazi zuten, eta informazio falta ere salatu zuten bi alderdiek.

Azkenik, PSE-EEK hainbat gairi buruz galdetu zuen, hala nola, lokalen eta etxebizitzaren araudia, Goikale edo Blas de Lezo kaleetako lanak, Erribera kaleko egoera, Landaberri ikastetxeko jangela edo Sasoeta auzoko etxeen arteko lokalen eraispena.

Nerea Sanchez hirigintza batzordeko buruak jakitera eman zuenez, lokalen araudiari dagokionez, abokatu eta arkitektoaren txostenaren zain daude; sailak duen lan kopuruarengatik, Goikaleko berurbanizazioaren proiektuarekin ez dira hasi; Blas de Lezo kaleko aurki hasiko dira, behin akta sinatzean; bestetik, Erribera kalean komunitateekin jarriko dira harremanetan dauden arazoak ezagutzeko, eta Sasoetako lokalen kasuan, nahiz eta hiru enpresek harremanetan egon, oraindik eraisteko modua ez dela erabaki eman zuen jakitera.

Bestalde, Boris Nogalesek Garaikoetxeako jangelaren proiektuan lanean ari direla aurreratu zuen.

KULTURA

Oriberen erakusketa Basque Culinary Center-ean

Miguel Angel Oribe eskultoreak lan berria du, "Nebulosak", eta Basque Culinary Center-en dago ikusgai.

"Nebulosak" ardoaren munduan oinarritutako pintura eta eskultura multzoa da, eta ardo baten sorkuntza prozesuaren zati batzuk irudikatzen ditu.

Teknika artistiko desberdinak eta estatu guztiko 16 jatorrizendapen ardo erabiliz, "urte eta erdiko ikerlana" izan da Oriberena. "Koadroak eta marrazkiak 24 mahats bariatatekin eginak daude," aipatu du.

Oribe jakinarazi duenez, bere asmoa erakusketa ibiltaria izatea da, eta estatuan dauden Ardo Museotara eraman nahi du. Aurreratu duenez, Valladoliden eta Errioxan museo pare bat "lotuta" dauka.

INAUTERIAK

Gaia aukeratzeko galdeketa

Lasarte-Oriako Udala 2014 urteko inauteriak prestatzen hasi da dagoeneko eta gaia aukeratzeko herritarrei zuzendutako galdeketa jarri du martxan.

Horretarako, aurki eskuorri bat iritsiko da etxeetara. Bertan gaia idatzi eta udal eraikinetan dauden parte hartze postontzietan utzi behar da.

Internet bidez egin nahi izanez gero, berriz, iradokizuna albisteak.lasarte-oria.org orrialdean egin daiteke.

Proposamenak urriaren 27 baino lehen egin behar dira. Izan ere, behin ideia guztiak jasota, konpartsetako ordezkarien mahaia bilduko da, eta bertan erabakiko da zein izango den gaia.

Era berean, Udalak konpartsa berria osatzeko asmotan dabilen herritar orori garaiz dabilela ere gogorarazi nahi dio, konpartsen mahaian parte hartu eta diru-laguntzak eskatzeko.

LOTERIA

Lasartearra elkartearen loteria

Lasartearra elkarteak bazkideei eta lagunei jakinarazten die Gabonetako loteriako txartelak salgai dituela dagoeneko.

Hauetako eskuratzeko, elkartearen egoitzara, Erribera Kalea 10 atzealdean, hurbildu behar dira interesatutako.

UDALA

Kexak eta iradokizunak, Facebooken

Lasarte-Oriako Udalak herritarren kexak eta iradokizunak jasotzeko bide berri bat jarri du martxan, Facebooken. Horrela, Udalak sare sozialean duen orrialdean, Lasarte-Oria Sarean, harremanetarako tarte ireki du, goiko eta eskuineko aldean.

Aukera berri honekin, herritarrek hiru bide dituzte eskura Udalarri bere mezuek helarazteko: Facebookeko orrialdea, parte hartzeko buzoiak eta iradokizunak@lasarte-oria.org helbide elektronikoa. Jasotako iruzkin guztiei erantzuna emateko konpromezua hartu du Udalak.

BIYAK BAT

Orreaga eta Donibane Lohitzunera bidaia

Biyak Bat Elkarteak urriaren 28rako Orreaga eta Donibane Lohitzunera bidaia antolatuta du.

Autobusa goizeko 8:00etan aterako da egoitza. Orreagara iristean, kolejiata ezagutzeko bisita gidatua egingo da. Bazkaria Arneguy herrixkako "Peio" bentan izango da eta arratsaldean Donibane Lohitzunera bisitatuko dute.

Elkarteko bazkideek 35 euro ordainduko dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, 40 euro.

Izena emateko egoitzako bulegora hurbildu behar da. Inskripzioa astelehenean, urriaren 14an hasiko da.

Kukukaren egun handia

Udalak eta Kukuka Antzerki eta dantza taldeak hitzarmena sinatu zuten asteazkenean. Modu horretan, taldea herri mailan egiten ari den eta egingo dituen ekintzen errekonozimendua egin zuen Udalak. Pablo Barrio alkatea zentzu horretan mintzatu zen: "Lasarte-Oria oso herri aberatsa da arlo honetan, eta hori bultzatu behar dugula uste dugu".

Jarraian, Boris Nogales Kultura Batzordeko buruak akordioaren xehetasun ekonomikoen berri eman zuen. Kukukak bere programazioa bete ahal izateko, 6.229



Kukuka antzerki eta dantza eskolako eta Udal ordezkariak hitzarmena sinatzen.

euroko diru-laguntza emango dio Udalak.

Azkenik, hitzarmenaren garrantzia azpimarratu zuen Joxe Mari Agirretxe Kukukako

presidentea: "Gauza ederra da hamabi urteren ondoren hemen egotea, Udala eta Kukukaren arteko lehen hitzarmena sinatzen".



Aurten Lasarte-Oriako 26 bikotek ospatuko dituzte urrezko ezteiak herrian. Guztiek izan zituzten opariak.



ONCEko antzerki taldeak "Clochemerle" lana eskaini zuen astelehenean.



Elkartetik Ama Brigitarren komentura kalejira, meza eta luncha izan ziren asteartean.

Urrezko itxiera aste bereziari

Adinekoek urrezko ezteiekin amaitu zuten ospakizuna

Zazpi egun bizi-biziren ondoren, asteartean amaitu zen adinekoen omenaldi astea. Azken egunean, urrezko ezteiak bete dituzten herriko bikoteei eskainitako ekitaldiak burutu zituzten. Horrela, kalejira, meza, lunch-a, opari banaketa eta afari-merienda izan zuten omenduek. Asteari bukaera borobila emateko, dantza saio batekin erakutsi zuten euren sasoi.

Urrezko ezteien ospakizunarekin, adinekoen omenaldi asteari amaiera eman zitzaion asteartean. Ezkontzetik 50. urteurrena bete duten herriko bikoteei eskainitakoa izan zen ospakizunen azkeneko eguna.

Amalurreko txistulariek markatutako erritmoan, bikoteak kalejiran abiatu ziren Zaharren Egoitzatik, eta Ama Brigidatarren Komenturainoko bidea osatu zuten ibilian. Bertan meza entzun ondoren, hamaiketakoa egin zuten, Komentuko atarian eskaini zieten lunch-arekin.

Arratsaldean, berriz, urrezko ezteien bereizgarri gisa, opari bana jaso zuten senar-emazteek Zaharren Egoitzan. Joxe Mari Bardaji Zaharren Egoitzako presidentek egin zuen aurkezpena, bikoteak zorionduz eta Udalarari astearen antolakuntzan emandako laguntza eskertuz.

Jarraian, Pablo Barrio alkateak eta Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuen arduradunak hitz batzuk eskaini zituzten omenduei, eta oparien banaketari ekin zioten, Pako Hita egoitzako presidenteordearekin batera.

Familiako argazkia egin ondoren, afari-merienda goxo bati egin zioten bidea, eta behin indarrak hartuta, dantzatzeari ekin zioten adinekoek.

Modu horretan, euren sasoi ona erakutsi nahi izan zuten, omenaldi asteari itxiera bikaina emateko.

Antzerkiak gozatzen

Astearteko egun mugituaren aurretik, Manuel Lekuona kultur-etxeko besaulkietan patxadaz eseri eta antzerkiak gozatzeko aukera izan zuten adinekoek astelehenean. Izan ere, ONCEko antzerki taldeak "Clochemerle" saio dibertigarria eskaini zien.

Aste berezi honetan egin-dako kirol jarduera, bazkari-afari, txapelketa, dantza edota antzerki saioak ez dituzte erraz ahaztuko omenduek.

Semblante Andaluzen aste kulturalak Golf plaza hartuko du

Semblante Andaluzek astelehenean eman zion hasiera XI. Aste Kulturalari. Elkarteko egoitzan, kideez gain, Pablo Barrio alkatea, Boris Nogales EAJko zinegotzia, Jesus Zaballos eta Txus Alonso PSE-EEko zinegotziak, Marcos Rodriguez Inmigrazio eta Aniztasuna saileko zuzendari orokorra eta herriko beste elkarteetako lagunak bildu ziren ohorezko ardoa eta mokadu bat hartzera.

"Semblante Rociero" taldeak bere harrizkoa jarri zuen irekiera ekitaldian eta hainbat doinu eskaini zituen.

Astean zehar, mus, tute eta pote txapelketak izan dira Atsobakarreko egoitzan, eta gaur, berriz, afari herrikoia izango da.

Ekintza ugari plazan

Asteburuan, aldiz, jaia egotzetik aterako da, eta Golf plazan izango dira ekitaldi guztiak. Bertan erkidego honetako edari eta janariez gozatzeko tabernaxoa izango da.

Larunbat eguerdian "Amigos del Sur" taldea izango da oholtzan. Arratsaldean, ostera, hainbat taldez gozatzeko aukera izango da, "Azabache", "Zambra" edo "Sevilla" taldearen dantzaldia.

Merche Montes edo "Son Kandela" taldearen emanaldiak ere izango dira. Egunari amaiera emateko, dantzaldia izango da.

Igandean ere askotariko ekitaldiak prestatu ditu Semblante Andaluz elkarteak.



Semblante Andaluzeko lehendakaria, udal ordezkari eta elkarteko lagunak ohorezko ardoarekin topa eginen.

"Gitanillos del Alba" eta "Duende Flamenco" taldeen emanaldia izango da lehenik.

"Circuito de Trenes de Jardín" erakusketak ere izango da ikusgai.

Jarraian, gizon eta emakumeen selekzio banak Pote lehiaketa jokatuko dute, eta haurrentzako jolasak ere antolatuko dira. Herri babarrun jana izango da ondoren, eta

"Semblante Rociero" taldeak emango die amaiera emanaldiei.

Asteari itxiera eman baino lehen, lehiaketen irabazleei sariak banatuko dizkiete.

Haur baten gerrako oroitzapenak

Angel Belza herritarrak Gerra Zibilean eta Errusian bizitakoa azaldu du Lasarte-Orian

Islada Ezkutatuak Lasarte-Oriako oroimen historikoaren aldeko taldea, besteak beste, 1937. urtean Gerra Zibilaren eraginez erbesterratuak izan ziren haur lasarteoriatarren memoria berreskuratzeko lana egiten ari da. Jasotako bizipenen artean, Angel Belza herritarraren kasua dago. Katalunian bizi da gaur egun, eta Lasarte-Oriara bueltatu da. Bertan, bere liburua aurkeztu, gazteei bere bizitza azaldu, garai beltz hori bizi zuten hainbat herritarrekin bildu eta bere esperientzia partekatu zuten Manuel Lekuona kultur-etxera hurbildu ziren herritarrekin.

Nerea EIZAGIRRE

Angel Belza herritarrak gaztea zen, 11 urte besterik ez zituen, Lasarte-Oria utzi behar izan zuenean. Espainiar Errepublikatik bidaliak izan ziren 5 eta 15 urte bitarteko 34.000 haurrekako bat da. "La Habana" ontzian Errusiara egin zuen bidaia, eta bertan beste guda bat bizi behar izan zuen. 50. hamarkadan bueltatu zen Estatura, baina bertan bost urte egon ostean, "poliziaren eta CIAren itaunketak sufrituz", Suitzara emigratu zuen. Bere emaztea hiltzerakoan, Kataluniara joan zen bizitzera. 2010. urtean, bere ilobak bultzatuta, gerra garaiko bere oroitzapenak idazten hasi zen.

Aste honetan Lasarte-Oriara bueltatu da Islada Ezkutatuak taldearen lanari esker.

Nahiz eta 87 urte izan, indar eta argitasun osoa mantentzen ditu Angelek, eta bere oroitzapenak zabaltzeko prest dago. Horregatik, gure herrian agenda hitzaldi eta ekitaldiz bete izan du.

Transmisioa

Astearte eta asteazken goizean, Belza belaunaldi berriekin egon zen eta transmisio lana egin zuen.

Instituetako gazteek adi entzun zituzten gerra garaiko oroitzapenak eta gaur egun

Errusia eta Ukraina osatzen duten lurretan barrena egin zuen bidaia nolakoa.

Liburuaren aurkezpena

Astearte eguerdian, beriz, bere liburua "Angel Belza. Memorias de un niño en Rusia, 1937-1957" aurkeztu zuen lehenengoz gure herrian. Lasarte-Oriako Udaltxean, lehen Eskola Nazionalak zirenean, egin zen aurkezpena.

Angelekin batera, Pablo Barrio alkatea, Valentín Carrera argitaratzailea eta Mikel Amenabar Islada Ezkutatuak taldeko ordezkaria izan ziren egun berezi horretan.

Pablo Barrio alkateak azaldu zuenez, Belza 1937an Errusiara eta Europako beste herrialdeetara gerratik ihesi bidalitako "gerrako haurra" da. "Hamaika urte egiteko zituela, Lasarte-Oria utzi eta Bilbotik "La Habana" ontzian Errusiara bidea egin zuen".

Aurkezpenean Mikel Amenabar Islada Ezkutatuak taldeko kideak "horrelako pertsona bat gurekin izatea altxorra da", azpimarratu zuen.

Amenabarrek jakinarazi zuenez, gerra garaiko testigantzak jasotzen ari zirela, haiekin harremanetan jarri ziren Katalunian Errusian egondako Lasarte-Oriako



Pablo Barrio alkatea, Angel Belza, Valentín Carrera argitaratzailea eta Mikel Amenabar Islada Ezkutatuak taldeko kidea, aurkezpenean.

"gerrako haur" bat zegoela esanaz. Haren testigantza interesagarria iruditu, kontakua egin eta bere oroitzapenak idatzi zituela jakin zuten.

Ondorioz, hurrengo pausoa Udaltxean laguntzaz aste honetako egitaraua prestatu eta bere bizipenak herriari jakinaraztea izan zen.

Ispluaren zati bat

Valentín Carrera argitaratzaileak lehenik eskerrak eman zizkion Udaltzari liburua aurkezteagatik. Izan ere, argitaletxea txikia da eta ikerketa bildumaren lehen liburua da hau.

Jan luze honek oroitzapenak, kronologia zehatza, argazkiak, etab. ditu. Carrerak azaldu zuenez, Errusia eta Ukrainara bidaiatu behar izan dute guztiz dokumentatzeko.

Angelen bizitza Ulisesen Odisearen antzeko bidaia dela azpimarratu zuen, "ontzian Errusiara, bizitza klandestinoa, gulag batean bizitzea... eta orain berriro, bere herrira bueltatu da. Oroimenaren arku eta gezia botako ditu bertan".

Eta Islada Ezkutatuaren irudiari aipamena eginez,

"ispiluari zatiak falta zaizkio eta Lasarte-Oriako oroimen historikoa berreskuratzeko lagunduko duen zatietako bat liburu hau da", aipatu zuen.

Oroitzapenak

Azkenik Angel Belza herritarren txanda izan zen. "Lasarte-Orian egotea oso berezia da", onartu zuen.

Angelek azaldu zuenez, bere iloba batek bultzatuta hasi zuen liburuaren bidaia eta eskertua dago, honi esker Lasarte-Oriara bueltatu baita. "Errusian urte asko egin arren, nire burua Lasarte-Orian nuen," adierazi zuen.

Bere familia eta haurtzaroko oroitzapenak ekarri ditu gogora, "Lasarten bazen errepublikar zirkulu bat eta horretan errepublikako bandera zegoen jarrita" edo "nire gurasoak langileak ziren eta nik ez nuen ulertzen zergatik joan behar ginen Bilbora, gerora jakin nuen amak esanda gorriak ginela".

Bilbon ontziratuta baino lehen ikusitakoari buruz ere mintzatu zen, "gosea, bonbardaketak,... izuaren museoa zirudien. Horrek eragin handia izan zuen nigan".

"La Habana" ontzian igo eta Errusiara ustez urte betez edo urte eta erdiz zihozela ere aipatu zuen. Errusian bizi leku zituzten etxe berezietan buruz hitz egin zuen. Bigarren mundu gerraren hasierari eta bizi zuten egoerari buruzko aipamena ere egin zuen prentsaurrekoan.

Topaketa eta hitzaldia

Bestalde, astearte arratsaldean, Angelek gerra garaia bizi zuten beste herritarrekin eta haien senideekin egoteko aukera izan zuen. Guztiek haien oroitzapenak elkarbanatu zituzten, garai latz haiek gogora ekarri.

Horrez gain, asteazkenean Manuel Lekuona kultur-etxearetoa lepo bete zen Belzaren testigantza ezagutzeko.

Baina Angelek bizitakoaz gain, beste "gerrako haur" eta "La Habana" ontzian begirale lanetan joan zen Felisa Galanen esperientzia ere entzuteko aukera izan zuten guztiek.

Aurretik Islada Ezkutatuak taldeko lagunek oroimen historikoa argitzeko "gure aurpegiaren isla ispiluan ikusi arte" lanean jarraituko dutela aipatu zuten.



Herritarrek Angel Belzaren testigantza entzuteko Manuel Lekuona kultur-etxearetoa bete zuten.



Asteartean, Angel Belza gerra garaiko beste haur eta haien senideekin bildu zen Manuel Lekuonako kafetegian.

Agenda

Ostirala 11, 19:20ean, Manuel Lekuona kultur-etxea



Txema Vallesi omenaldia

“Orain zure txanda da Txema Valles” omenaldia antolatu dute herriko hainbat elkarte. Honen bitartez, DV-ko korrespentsalak 30 urte hauetan egindako lana eskertu nahi da Manuel Lekuonan egingo den emanaldian. Bertan, herriko hainbat elkarteetako taldeek parte hartuko dute. Sarrera doan. Horretaz gain, Aterpeko dendetan Txemak idatzitako artikulak aurki daitezke, eta ingandean kazetaritzaren gaiarekin lotutako “Buenas noches y buena suerte” filma eskainiko da.

Musika

ZULO ARETOA
Ostirala 11, 22:30ean
“Patxuko Nice”-en kontzertua. Ondoren, “A rasta-k” eta “Kenke jajah” doinuez gozatzeko aukera.
Larunbata 12, 22:30ean
“Costa Bestia”-ren kontzertua eta “Royal Jaleo” DJ-aren Bass Music saioa izango da. Sarrera 15 euro.

Hitzaldia

ZABALETA AUZOKO LOKALA
Ostirala 11, 19:30ean
Aizea Morales-Kastresanak “Minbizia: atzo, gaur eta biharko terapiak” hitzaldia eskainiko du. Euskaraz. Zabaleta auzoko Udazken festeko ekitaldia.

Bakarrizketa

ABEND KAFE ANTZOKIA
Larunbata 12, 00:00ean
“El Peli”-ren umorezko bakarrizketa.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA
Igandea 13, 17:00etan
Haurren zinea atalaren barruan, “El Llano Solitario” filma ikusi ahaliko dute gazteok. Sarrera, leihatilari 3,60 euro; internet bidez, 3,18 euro. Gaztelaniaz
Igandea 13, 19:30ean
Helduen zinea atalaren barruan, “Buenas noches y buena suerte” filma ikusi ahaliko da. Sarrera, leihatilari 5,85euro; internet bidez, 5,30 euro. Gaztelaniaz. Okendo Zinema taldeak antolatuta Txema Valles-en emanaldiaren barruan.

Aste kulturala

SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEA
Astelehena 7-Igandea 13
“Sabrias reconocerme” argazkien lehiaketa eta erakusketa ikusgai izango da.
Ostirala 11, 22:00etan
Herri afaria izango da.

GOLF PLAZAN

Larunbata 12
12:00etan, “Amigos del Sur” taldea.
16:00etan, “Azabache” taldea.
16:15ean, Merche Montes-en kontzertua.
17:00etan, “Zambra” taldea.
17:30ean, “Sevillana” dantzaldia.

20:00etan, “Son Kandela”-ren emanaldia.
21:00etan, herri dantza saioa.

Igandea 13

11:30ean, “Gitanillos del Alba” eta “Duende Flamenco” taldeak.
12:00etan, tren maketaren erakusketa.
12:30ean, gizon eta emakume selekzioen arteko pote txapelketa.
13:00etan, Haur jolasak.
14:30ean, Babarrun jana.
18:00etan, “Semblante Rociero” taldearen emanaldia.
19:30ean, Lehiaketen saribanaketa.
20:00etan, aste kulturalari amaiera.

Erakusketa

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA ETA HERRIKO TABERNAK
Urria amaierara arte
“1936 Lapurtutako haurtzarora” argazki erakusketa ikusgai izango da Udalak eta Islada Ezkutatutak taldeek antolatuta.

Buruntzaldea

Bestelakoa

Igandea 13, goiza osoa
Buruntzaldeko VI. Ibilbideen eguna ospatuko da.

Herritarren txokoa

Usurbilgo Lanbide eskolako tituluak

Usurbilgo Lanbide eskolak jakin arazten du, 2012 urtean erdimaila eta goi mailako ikastaroak amaitu zituzten ikasleak haien tituluak jasotzera hurbildu daitezkeela eskolara. Tituluak Lanbide eskolako bulegoan jasoko dira, goizetan 9:00etatik 14:00etara.

Alboka Abesbatza eta Alboka Txiki-ren entseguak

Alboka abesbatzak jakinarazten du Alboka Txiki abesbatzak urriaren 1ean, astearte, arratsaldeko 18:00etan, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan hasiko dituela entseguak.

Herriko abesbatzak 5 eta 16 urte arteko haur eta gazteok animatu nahi ditu entseguetara hurbildu eta probatzera. Ez da beharrezkoa musika ezagutzarik izatea.

Bestalde, helduen abesbatzak astelehen eta ostegunetan 20:00etatik 21:30etara ditu entseguak.

Erketz-eko taldeen entseguak

Erketz EDT eta Erketz-eko Lagunak taldeak lanean ari dira. Erketz-eko

Lagunak taldeak asteartetan egingo ditu saioak eta Erketz EDT-ko kideek, berriz, ostegunetan. Entseguak Zumaburu ikastetxeko gimnasioan izango dira, 20:00etatik aurrera, ohi bezala.

Era berean, 5 urtetik aurrerako haur eta gazteok ere Erketz Txikin dantza egiteko aukera izango dutela gogoratu dute.

Azalpen edo informazio gehiago eskuratu nahi duten guztiengazko 635 746 028 telefono zenbakia jarri du eskura dantza taldeak.

Uztaro Kooperatiba

Uztaro Kooperatibak janariaren kontsumo arduratsu, bertakoa eta ekologikoa sustatu nahi du.

Lasarte-Oriako eremua elikatzen duen baratza, Beizaman kokatua dago. Astelehenero, Danok Kide elkarteko lokalean banatzen dira barazki eta fruitak, garaiari garaioak eta ekologikoak.

Proiektua gustuko dutenek atek zabalik dituztela jakitera eman dute Uztarokoek. Informazio gehiago eskuratzeko, uztarolasarteoria@hotmail.com helbidean.

Hemeroteka

Duela 1078 ale

1995-eko urrian Luis Puyada herritarra elkarrizketatu genuen TXINTXARRI aldizkarian. Izan ere, ONCE-ko kupoi-saltzaileak 23 urte egiten zituen orduan bere lanpostuan.

Kale Nagusiko kioskora hurbildu eta herekin solasean egin genuen.

Luisek azaldukoaren arabera, Kale Nagusiko kioskoa Gipuzkoako lehena izan zen, “nire ekimena izan zela medio lortu nuen. Urte horietan nik oraindiko behar izan nuen kioskoaren kostua”.

Kupoi salmenta kopuruari buruz, “kupoi gehiago saltzen ditut orain dela urte batzuk baino. [...] Gainera, ostiraletan saltzen dut gehien”, azaltzen zuen.

Mila bitxikeri izan dituela onartu zuen elkarrizketan, baita sari handiak eman zituela ere, “orain dela bost urte, 75 milio (pezeta) banatu nituen. [...] Saltzaileok, kasu horietan, saria egokitzen zaiona bezainbeste poztzen gara”.

Honetaz gain, bere itsutasunari buruz eta itsuen etorkizunaz ere mintzo zen. “Duela 25 urte hasi nintzen ikusmenarekin arazoak izan eta orain dela hamar urte utzi nion erabat ikusteari”, azaltzen zuen.

“Nik uste dut gizartea gero eta gehiago prestatzen ari dela edozein elbarritasuni aurre egiteko”, gehitzen zuen, eta Udalari eskaera bat ere egin zion, “semaforo guztietan soinua jartzea”.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Txema Valles DV-ko korrespontsala

"Lasarte-Oriako gaur egungo historiaren eskribau izan naiz"

30 urte egin ditu Lasarte-Oriako korrespontsal lanetan eta omenaldia egingo diote

Lasarte-Oriako hainbat elkarte eta eragilek gaur 19:20etik aurrera Txema Valles korrespontsala omenduko dute Manuel Lekuona kultur-etxean antolatuta den emanaldi bereziarekin. Ospakizun handiko eguna izango da gaurkoa, bere urtebetetze eguna ere baita.

Nerea EIZAGIRRE

Lasarte-Oria herriaren sorrera, milaka udalbatzar, urrezko etzeiak, zaldi lasterketak, kirolak... gure herrian jazotako era guztietako gertaerak argitaratu ditu Txema Vallesek duela 30 urteko hona idazten duen orrialdean. Baina Lasarte-Oriako historiarekiko duen zaletasuna txikitatik dator. Izan ere, Dorre etxean jaio zen. Harekin izan gara bere lehen pausoak eta urte haue-tako errebaso bat egiteko.

Nola hasi zinen korrespontsal lanetan?

Ni 1983ko abenduaren 27an hasi nintzen korrespontsal lanetan.

Elektronikoa nintzen ni, baina kirolaria nintzen, futbol jokalaria, eta maila garrantzitsuetan jokatzeko nuen.

Kirol arloan hasi nintzen lanean LA VOZ DE EUZKADI-n eta politika eta gizarte gaiak lñaki Eskisabel zenak egiten zituen. Urtebete egin genuen, baina ez zuten ordaintzen.

Imanol Lizardi, nire lagun handia, DIARIO VASCON zegoen. Carlos Garciarri postua utzi zion, eta honi gogorra egiten zitzaiola aipatu eta niri esan zidan probatzeko.

Orduan EGIN edo DIARIO VASCO-ra jo behar zenuen. Imanolen proposamena onartu nuen eta gaur egunera arte.

Zein izan zen zure lehen kronika?

Nire lehen kronika inozentada bat izan zen, noski. Gaur egun institutua dagoen tokian, aha-teen lakuan dinosauro hezurra aurkitu zutela idatzi nuen eta jendea hurbildu zen bigiritzera. Horrelako istorio asko egin izan ditut inuzente egunean.

Gero, kirola oso gogoko dudanez, saskibaloiko kronikak Coliasek egiten zizkidan; Imanolek ere laguntzen ninduen.

Gizarte gaiak pixkanaka egiten hasi nintzen. Orduan ez ninduten ezagutzen eta leku guztietara joan behar nintzen. Hazia landatzen joan nintzen eta gaur egun edonork gertatzen nau kalean.

Atzera begira, 30 urte haue-tako esfortzuak eta lanak merezi izan dute.

Lana ongi egin duzunaren seinale...

Ez dakit ongi egin dudanez edo ez. Pluralista izaten saiatu naiz. Guztiei leku bat egiten. Betiere, lan egiten dudanez komunikabi-dea kontuan izanik.

Baina oso zaila da guztiak asetzera eta momentu oso zailak bizitzen dira, presio politikoak, etab. Nire burua informazioaren toreatzailatzat dut.

Baina kronikaz gain, areto-futbola ere idazten duzu?

Bai, hasieratik. Kronika idazteaz gain, kirol arloko albisteak ere egiten nituen.

Kirolaria nintzenez, areto-futboleko jokalaria eta erkide-goko mailan jokaturakoa, bada kirol erredakzioan egon nintzen.

Gaia menperatzen nuen, Pedro Gabilondok lanak ematen zizkidan eta Michelinen jokatzeko zuten SANSE taldearen kronikak egiten nituen edo Atocha-ko aldageletako elkar-irizketak, etab.

Gerora, areto-futboleko kronikekin hasi nintzen. Gaur egun, Gipuzkoako areto-futbol saila nik idazten dut. Badi-ra ia 25 urte hori egiten hasi nintzela.

Lasarte-Oriaren eraketa bizi izan duzu?

Lasarte-Oriako gaur egungo historiaren eskribaua izan naiz, beste hainbat pertsonen artean. Herria eratu zenetik gaur egunera arte.

Nik garapen guztia bizi izan nuen: udala nola sortu eta osatu zen, Zumaburuen egiten ziren behineko udalaren batzarrak...

Baita eraldaketa ere?

Urbanistikoki asko aldatu da eta horrek pena ematen dit.

Modernoagoa da, baina nire ustez, hain gustuko dudanez oroimen historikoa, Lasarte-Oriaren historia nolabait ezabatu da. Gauza gutxi geratzen da, Ama Brigitarren

komentua, eliza eta honen ondoko etxeak. Beste guztiak oroitzapenak dira.

Oroitzapen eta oroimen historikoaz ari zarela, zuk artxibo bat duzu...

Nik txikitik Lasarte-Oriarekin zer ikusia zuten egunkari edo aldizkari zatiak biltzeko zaletasuna nuen.

Eta gerora, artxiboa eratzen joan naiz. Nire bizitzako ordu asko egin ditut honetan. Nire ondarearen zati bat da, herriaren historia da eta herriaren eskura egon behar du.

Pena ematen dit Udalak hau zaindu ez izana. Herriaren identitatea mantentzeko artxibo bat garrantzitsua da. Gauza puntualak egin dira, baina ez dago jarraipen bat.

Herriaz gain, lan egiteko modua ere asko aldatu da...

Ni Olivetti batekin eta kalkoarekin hasi nintzen lanean, eta 30 urte hauetan teknologiak asko aldatu dira.

Argazkiak errebelatu eta handitu... jendea harritu egiten da egunero orrialde bat nola egiten genuen azaltzean. Eta gainera, egitera iristen ginen.

30 urte hauetan bizipen asko izango dituzu, ezta?

Denetarik dut. Bizipen ederrak eta gogorrak.

Herriaren kultura talde garrantzitsuak izan dira, baina kirola oso gogoko dudanez, niretzat Jon Tece-dor zena eta Maialen Chourraut ezagutzea oso garrantzitsua izan da.

Ez bakarrik haiek lortutako kirol emaitzengatik, baizik eta haien kalitate personalarengatik.

Jon Tece-dorrek on lotura estua izan nuen. Jon oso kirolari ona zen bere arloan, halterofilian, eta lortu

zuen, Olinpiadetan zortzigarren izatea, oso garrantzitsua izan zen. Gainera, Euskadiko sei orduetan parte hartzea lortu genuen.

Bestalde, Udalaren 10. urteurrenean, langileei egingo omenaldian egin zidaten aipamenaren dut gogoan, edo Hipodromoan iaz egin zidaten omenaldia. Izan ere, zaldiak nire zaletasunetako bat dira, futbol eta txirindularitzarekin batera.

Gogorrak ere aipatu dituzu?

Bai, hiru egoera oso gogor bizi nituen. Batetik, Hipodromoko zubiko lanetan Gurutze Gorriko lagun baten eta langile baten heriotza ikusi nuen. Ni argazkiak ateratzen nengoen, gizona itotzen ari zen eta ezin nuen ezer egin. Oso gogorra izan zen.

Bestetik, Miguel Angel Blancoren eta Froilan Elesperen hilketak daude.

Miguel Angel Blancoren kasuan, lehen kazetaria izan nintzen bertara iristen. Gurian zerbait hartzen ari nintzen Tourra ikusten nuen bitartean, anbulantzia ikusi eta jarraitu egin nuen.

Bestalde, Elespere hilketaren

ostean, herriaren egoera oso konplikatu izan zen, eta hori ere bizi behar da.

Omenaldia egingo dizute gaur...

Ez dakit egingo didaten guztia eskertzeko gai izango naizen. Gainera, gaur 55 urte betetzen ditut.

Beraz, berezia izango da gauza askorengatik, esate baterako, gaur bestaldean egongo naizelako, nik ez dudalako horren berri emango.

Polita da horrelako omenaldiak jasotzea eta, batez ere, bizirik zaudenean. Izan ere, horrelakoak hildakoan egin ohi dira.

Horrengatik, badaezpada, eskerrak eman nahi dizkiet guztiei. Jose Perezi ideia izateagatik, lan talde guztiari, parte hartuko duten elkarte eta taldeei.

Eta nirekin 30 urte hauetan lan egin eta lagundu didaten guztiei, Udaleko idazkariak, prentsa arduradunak, udaleko euskararekin lagundu zidaten Imanol Lizardi, Pablo Suberbiola, Juanito Bereziartua, Iñaki Arruti...

Kazetaritzari dagokionez, Porru, Iñaki Eskisabel zena, Arkaitz Illarramendi, Aitor Azkonobietza, zu zeu, Nerea Navarro, Ainara Hernando, Mari Kamen Ormazabal, Maider Azurmendi, Jon Altuna, Oxan Altuna, Arantza Artola...

Eta ezin ahaztu ditut nirekin batera lanean egon diren Lozanoren semea, Mikel Ormazabal, Idoia Garzes, Miguel Gutierrez, Vanesa Murga, Laura Roux, Aitor Moreno, Maider Domingo, Andoni Marin, Maria Cortes eta, noski, Irati Zatarain. Oso eskertua nago guztiekin.

Agian norbait utzi dut, baina espero dut inork ez gaizki hartzea.

